



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO MARTXOAREN 10EAN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/02/25EKO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2020ko otsailaren 25eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- AGINAGAKO KOMENTZAENEA-TXIKI BASERRIAN ORDEZKATUTAKO
ESTALKIAREN OBRARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2018-0202

XABIER MURUA ARRUTI, ANTONIO MURUA ARRUTI eta INAXIO MURUA ARRUTI jaunek, Aginagako Komentzaenea-txiki baserrian ordezkaturako estalkiaren obra amaierako ziurtagiria aurkeztearen batera, lehen erabilera baimena eskatu dute.

AURREKARIAK – OBRETARAKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko abuztuaren 14an, XABIER MURUA ARRUTI, ANTONIO MURUA ARRUTI eta INAXIO MURUA ARRUTI jaunei, Aginagako Komentzaenea-txiki baserriaren estalkiko egitura eta honen estaldura ordezkatzeko udal baimena ematea udal baimena eman zien.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	42.369,70 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 42.369,70 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 95 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.1.a artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 411,72 €
	Fidantza (%120): 494,06 €.



Usurbilgo Udala

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2020ko urtarrilaren 8an interesatuek, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, tartean hondakinen kudeaketa amaiera txostena, lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko 2018ko irailaren 17an ezarritako 494,06 €-tako fidantza (IE 33-2018) itzultzeko eskatu dute.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2020ko otsailaren 27an lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: XABIER MURUA ARRUTI, ANTONIO MURUA ARRUTI eta INAXIO MURUA ARRUTI jaunek, Aginagako Komentzaenea-txiki baserrian ordezkaturako estalkiaren obrari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2018ko irailaren 17an ezarritako 494,06 €-tako fidantza (IE 33-2018) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: 3035 0001 58 0014104365.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaitzari, zergen kitapena egin dezan.

Batzarkideek, aho batez, hurrengo puntua gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

3.- KALEZARKO BELMONTE KALEA 3 ETXEKO BEHE SOLAIRUAN ETXEBIZITZA EZARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2018-0274

OIHANE SARAOLA IRURETA herritarrak, Kalezarko Belmonte kalea 3 etxeoko behe solairuan etxebizitza ezartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	24.375,85 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabeko hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 151,60 €



Usurbilgo Udala

Fidantza (%120): 181,92 €

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2020ko otsailaren 17an honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA **Udal Teknikariak Alkateari** **OBRA HAUNDIAK**

KALEZARKO BELMONTE KALEA 3KO BEHE SOLAIRUAN ETXEBIZITZA **EZARTZEKO PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA**

ESKATZAILEA: Oihane Sarasola Irureta

ESKAERA DATA: 2018ko ekainaren 6an

ESP ZBKIA. HZ.04/2018-274

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 24.375,85 euro (PEM)

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 151,60 euro. fidantza (%120): 181,92euro

AURREKARIAK

- 2018ko ekainaren 6an interesatuak Kalezarko Belmonte kalea 3ko behe solairuan etxebizitza ezartzeko proiektua aurkeztu du.
- 2018ko irailaren 26an interesatuak Kalezarko Belmonte kalea 3ko behe solairuan etxebizitza ezartzeko proiektu berria aurkeztu du.

Erlazionatutako espedienteak: HZ.13 / 2017 – 0481. Kalezarko Belmonte kalea 3an bigarren etxebizitza moldatzeko aukeraz hirigintza galdera

- 2017ko irailaren 18an Oihane Sarasola Irureta andereak hirigintza kontsulta egin du Kalezarko Belmonte kalea 3an behe solairuan etxebizitza ezartzeko aukeraren inguruan.
- 2017ko azaroaren 13an udal arkitektoaren txostena.
- 2017ko azaroaren 15ean alkatearen 2017/1150 dekretua.
- 2018ko apirilaren 5ean interesatuaren idatzi berria.
- 2018ko ekainaren 4an udal arkitektoaren txostena.
- 2018ko ekainaren 8an Alkatearen 2018/0642 dekretua.
- 2018ko irailaren 26an interesatuak dokumentazio osagarria aurkezten du
- 2018ko urriaren 1ean udal arkitektoak txostena idazten du baldintza hauekin:

Kalezarko Belmonte Kalea 3ko behe solairuan etxebizitza ezartzeko proiektuari aldeko txostena eman aurretik honakoak aurkeztu beharko dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Sailaren aldeko txostena.
- Eraikinaren gaur egungo egoeraren eta proposatutakoaren altxaerak.
- Babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzen justifikazioa.
- EKT-HE1 dokumentuaren justifikazioa

- 2019ko martxoaren 12an interesatuak dokumentazio osagarria aurkezten



Usurbilgo Udala

- du
- 2019ko irailaren 24an GFAaren aldeko txostena
 - 2020ko otsailaren 13an interesatuak behin betiko proiektua aurkeztu du

2. TXOSTENA

Oihane Sarasola Irureta andereak Kalezarko Belmonte kalea 3ko behe solairuan etxebizitza ezartzeko behin betiko exekuzio proiektua aurkeztu du udalean. Proiektua osatzen dute: memoria, aurrekontua, Segurtasun eta Osasunaren Oinarrizko Azterketa, Hondakinen kudeaketa plana, Baldintza Plegua, Kalitate Kontrolerako plana eta planoak. Guztia arkitektoak izenpetua eta teknikari gaituaren aitortpena aurkeztu da.

Aurrekarietan esan bezala, 2018ko urriaren 1ean udal arkitektoak proiektuari aldeko txostena emateko hainbat baldintza ezarri zituen:

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean esan daiteke:

- **EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA:** Udal arkitektoak aurreko txostenean eskuhartzea ontzat emateko ezarri zituen baldintzak bete dira.
- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 151,60 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (181,92 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua.
- **HIRIGINTZA-KARGAK:** Erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan parte-hartzearen zuzkidura-karga eta lagapenei dagozkionak Udalak dagokion udal ordenantzan arautuko dituela jasotzen da AASSTBren 1go Arauen Aldaketan. Ordenantza hori oraindik izapidetu eta onartu ez denez, udalak 2010eko martxoaren 16an behin betiko onartu zuen (GAO 2010-03-25) hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantzan jasotako irizpideak jarraitzea proposatzen da (ordenantzako 18. artikuluan, zehazki):

1. **Espazio Librean Sistema Orokorra osatzeko xedea duten lursailen balioa:**
 - $80\text{euro/m}^2(\text{s}) (2010 \text{ urtean}) + 12,7\%(\text{KPI}) = 90,16 \text{ euro/ m}^2(\text{s})$
 - Eraikitako azalera: $64,76 \text{ m}^2(\text{t})$
 - Eman beharreko lurzoru azalera m^2 bakoitzeko:
 - $64,76 \text{ m}^2(\text{t}) \times 1 \text{ m}^2(\text{s})/5 \text{ m}^2(\text{t}) = 12,95 \text{ m}^2(\text{s})$

Eman beharreko lurzoru azaleraren balioa: $12,95 \text{ m}^2(\text{s}) \times 90,16 \text{ euro/m}^2(\text{s}) = \mathbf{1.167,57 \text{ euro}}$



Usurbilgo Udala

2. Eraikigarritasun haztatuak izandako gehikuntzarekiko indarrean dagoen kuota ordaintzea, hirigintza-kargetatik libre:

Lurzoruaren egoera landa-lurra edo hiritartua izan daitekeela dio Lurzoruari buruzko ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legeak. Egoera honen arabera balorazioa era desberdinean egingo da. Gure kasuan lurzoru hiritartuaz ari gara.

Ondoren, Urriaren 24-ko 1492/2011 Errege Dekretuak, Lurzoru Legeko balorazioen Araudiak, lurzoruaren egoera kontutan hartuta balorazioa nola egin adierazten du. Hala, 22. artikulua arabera egingo da balorazioa:

a- ERAIKIGARRITASUN HAZTATU GEHIKUNTZAREN SALMENTA BALIOA (Vv)

LOKAL KOMERTZIAL ERABILERA						
Helbidea	udalerrria	Azalera (m ²)	Prezioa (euro)	Prezioa/m ² (euro/m ²)	%15eko jaitziera (euro/m ²)	Vv (euro/m ²)
Kale Nagusia	Usurbil	79	90.000	1.139,24	-170,89	968,35
Kale Nagusia	Usurbil	65	75.000	1.153,85	-173,08	980,77
Kale Nagusia	Lasarte-Oria	54	70.000	1.296,30	-194,44	1.101,86
Oztaran plaza	Lasarte-Oria	56	46.000	821,43	-123,21	698,22
Variante Errep.	Lasarte-Oria	47	70.000	1.489,36	-223,40	1.265,96
Juan Bautista	Andoain	47	61.000	1.297,87	-194,68	1.103,19
Vv lokala						1.019,73

Erabilera aldaketarekin etxebizitzaren gehienezko salmenta balioa, ordenantzako 10. artikulua arabera, Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza Tasatua erregulatzen duen Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da. Ordenantza horretako 12. artikuluan honakoa jasotzen da:

“1. EBUETen gehienezko salmenta-prezioa, horiei atxikitako garaje eta trastelekuak ere barne, BOETei aplikagarria zaien arautegi autonomikoan ezarritakoa izango da. Nolanahi ere, ezingo dute 1,7 indizea gainditu, udal Kalifikazioa lortzeko unean indarrean dagoen Erregimen Orokorreko BOE etxebizitzaren gehienezko prezioari dagokionez.”

Erregimen orokorreko BOEen salmentarako gehienezko modulua 1.576,40 €/m²u denez, EBUETen gehienezko salmenta prezioa: 1,7 X 1576,40 €/m²u = 2.679,88 €/m²u.

Azalera erabilgarria kontutan izanda: 62,07 m² X 2.679,88 €/m²u = 166.340,15 €

Beraz, 166.340,15 € / 64,76 m² = **2.568,56 €/m²(t) = Vv etxebizitza**



Usurbilgo Udala

Ondorioz, eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzaren salmenta balioa:

$$Vv = 2.568,56 - 1.019,73 = 1.548,84 \text{ €} = Vv$$

b- ERAIKUNTZA KOSTUEN KALKULUA

Exekuzio Proiektuaren arabera obrako egikaritze materialaren kostua 24.375,85 €-koa da; kopuru honi gastu orokorrak eta eraikitzailearen industria irabazia gehituta 29.007,26 € ko balioa lortzen da. Honi beharrezko gastu ezberdinen portzentaia aplikatu behar zaio: Proiektu teknikoak, Baimen eta tasak, Obra zuzendaritza, Obrako eta bestelako aseguruak, notaritza eta erregistroko gastuak, besteak beste. Beharrezko gastuei dagokien portzentaia %20 ingurukoa dela esan daiteke. Beraz, eraikuntza kostuen guztizko balioa honakoa da:

$$Vc = 29.007,26 \text{ €} + (0,20 \times 29.007,26) = 34.808,71 \text{ €} = Vc$$

$$\text{Beraz, } 34.808,71 \text{ €} / 64,76 \text{ m}^2 = 537,50 \text{ €/m}^2(t) = Vc$$

c- ERAIKIGARRITASUN HAZTATUAREN BANAKAKO GEHIKUNTZAREN BALIOA

$$Vv = \text{salmenta balioa (aldea)} (\text{euro/m}^2(t)) = 1.548,84 \text{ €/m}^2(t)$$

$$K = 1,4$$

$$Vc = \text{eraikuntza balioa (euro/m}^2(t)) = 537,50 \text{ €/m}^2(t)$$

$$\mathbf{VRS = (Vv/K) - Vc = 568,81 \text{ €/m}^2(t)}$$

Eraikitako azalera 64,76 m²-koaenez, eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzaren balioa honakoa da: 64,76 m² X 568,81 €/m²(t) = **36.836,41 €**

Udalari lagatu behar zaiona irabaziaren %15aenez: %15 X 36.836,18 € = 5.525,46 €

3. Hirigintza eta ekipamendu-gastuen kanon osagarria ordaintzea:

Erregimen orokorreko BOEn salmentarako gehienezko modulua: 1.576,4e/m²u (2010-11-18 EHAA)

Azalera erabilgarria (proiektuaren arabera): 62,07 m²(u)

Ordaindu beharrekoa

$$\mathbf{\%5x 62,07 \text{ m}^2(u) x 1.576,4e/m^2(u) = 4.892,36 \text{ euro}}$$

KONTZEPTUA	KARGA
1 Espazio Libreen Sistema Orokorra osatzeko xedea duten lursailen balioa	1.167,57 euro



Usurbilgo Udala

2 Eraikigarritasun haztatuak izandako gehikuntzarekiko indarrean dagoen kuota ordaintzea, hirigintza-kargetatik libre:	5.525,46 euro
3 Hirigintza eta ekipamendu-gastuen kanon osagarria ordaintzea:	4.892,36 euro
GUZTIRA HIRIGINTZA KARGAK	11.585,39 EURO

- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**

- Obrak hasteko gehiengo epea: 3 hilabete
- Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 3 hilabete.
- Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.

- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Gogorarazten da, obren egikaritzan zehar lurzoru publikoa okupatzerik behar bada, dagokion baimena lortu beharko dela.

ONDORIOA

Ondorioz, goian esandakoari jarraiki, Kalezarko Belmonte Kalea 3ko behe solairuan etxebizitza ezartzeko proiektuari **ALDEKO** txostena idazten zaio. Honakoak bete beharko dira ezinbestean:

- Ordaindu beharreko Hirigintza kargak **11.585,39** eurokoak izango dira.
- Obrak hasi aurretik, Hondakinen Kudeaketari dagokion fidantza ezarri beharko da (181,92 euro). Fidantza itzuli arazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- Oro har, EKT eta aplikagarria zaion gainontzeko araudia bete beharko ditu esku-hartzeak.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2020ko otsailaren 17an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENDABIZI: OIHANE SARAOLA IRURETA herritarrari, Kalezarko Belmonte kalea 3 etxeko behe solairuan etxebizitza ezartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

1. Ezarritako **hirigintza kargak, 11.585,39 euro, ordainduko dira.**
2. Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 151,60 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (181,92 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean

181,92 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2018-0274*" jarriaz kontzeptuan.

- OIER PAGAEGI ARIZTIMUÑO arkitektoak 2020ko otsailean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak zein udal aparejadoreak beraien txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusiak emandako ebazpena kontutan izanik, kanpo arotzeria, egurrezkoa izango da eta pertsiana bilgarriak erabili beharrean kontraleihoak erabiliko dira.
- Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko da.
- **Ur-hartunea:** baserriko ur hatuneak hurrengoak beteko ditu:
 1. Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoen adieraziko duten tokian.
 2. Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa eta irakurketa moduluak instalatuko dira.
 3. Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
 4. Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
 5. Kontagailua, hartunearen alboan jarriko da, Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko hormigoizko blokezko nitxoak eraikiko dira.



Usurbilgo Udala

6. Ura hartu baino lehen, instaladoreak prestatu eta Industria sailak onartu eta zigilaturiko hartuneko buletina aurkeztuko da.

- **Uren isurketa indarrean dagoen arazketa Lege eta Araudiari lotetsiko zaio.**
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obraren egikaritza epe gehiengoa: urte 1.
- **Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:**
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Obralaren Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
 - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
 - Obralaren Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
 - Lurralde kontribuzioaren alta.
 - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrairindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.
- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.



Usurbilgo Udala

- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak diotenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.